



# POSTALAK BEHARRA DUTENEI LAGUNTZEKO

Ibarratik Misio Taldeak postalak jarri ditu salgai; lortutako dirua dituen proiektuetarako erabiliko dute » 2

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2009-09-30**

VIIURTEA 1.789 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



89 urteko Bixi Larrinagak bota du aurtien jaiak iragartzen dituen txupinazoa. Atzo oroigarria eman zioten. E. MAIZ

**Jon Rekondok txapela irabazi du eta Josune Gorostidi bigarren geratu da**

**HERRI KIROLAK** II. Mailako Nafarroako Txapelketa irabazi du leitzarrek 7

**Stupenda Jones, R, Funtastic Planet eta Lain taldeak ariko dira asteburuan Bonberenean**

**TOLOSA** 22:30ean hasiko dira bi kontzertuak, ostirala eta larunbatean 2

**Berdintasun sailak ikastaroa antolatu du jabekuntza gorputzetik bultzatzeko**

**TOLOSA** Afrikako dantzen inguruko eskolak izango dira urriaren 6tik aurrera 2

## GIRO PAREGABEA IRURAKO ETA ALDABAKO EGUN HANDIAN

**JAIK** San Miguel eguna izan zuten atzokoan; Aldaban jaietako azken eguna izan zuten; Iruran, berriz, ostiralera arte atsedena egin eta jaietan murgilduko dira berriro ere asteburuan 4

**JUAN KRUIZ IGERABIDE** IDAZLEA

«Irakurketa gardena ematen didate haurrek; hortik asko ikasten da»

**ADUNA** Gaztetxoei zuzenduriko 'Printzesa Begi-Zulo' liburua aurkeztu berri du; Elena Odriozolaren marrazkiek irudikatu dute 6

**Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa izango da urriko eskaintzan aipagarriena**

**TOLOSA** Ekitadiz beterik dator hilabetea; musika izango da protagonista 5

•BERRIREKIERA•

**berogas**

Bainugelak, sukaldeak, berokuntza, gasa, energia berriztagarriak

Gremioen koordinazioa

San Frantzisko, 10 • TOLOSA • Tel.: 943 653 307

[www.berogas.com](http://www.berogas.com)

# R eta Stupenda Jones taldeak zuzenean entzuteko aukera, etzi

**Tolosa** » Beraien azken lanak aurkeztera etorriko dira Bonberenean; larunbatean, Funtastic Planet eta Lainek joko dute.

## ERREDAKZIOA

Musikaz blai dator berriro, Bonberenea asteburu honetan. Ostiralean eta larunbatean izango dira kontzertuak. Hasteko, etzi, 22:30etik aurrera, R eta Stupenda Jones taldeak izango dira eszenatoki gainean. Hurrengo egunean, garai berean berriz, Lain eta Funtastic Planet.

R taldea Andoaindik dator. Orain arteko denboran eginko lanaren emaitza da *Uneak*, beraien azken diskoa. Bonberenea ekin-tzak zigiluarekin eman zuten argitaratu gabe baina taldearen sustraia ahaztu gabe, 9 abesti berriez osatutako lana da hau. 90. hamarkadaren erdialdean kokatzen dira R taldearen hastapenak.

Stupenda Jones berriz, Araba eta Nafarroaren arteko mugan dugu, den harrobiko rock taldea dugu, La Polla Records, Los del Rayo edota Kaoitiko bezalako talde handiek ere osatzen dutena. Haiek Sakanako Olazti herrikoak dira,



Lain talde billabonatarra entzuteko aukera izango da larunbat gauean, Bonberenean. HITZA

eta bi hizkuntzatan moldatzen dira: euskaraz eta gazteleraz.

Bere lehenengo kantuak 2004an argitaratutako *Osti bi izene*ko diskoan grabatu zituzten, Brigada Criminal taldearekin partekatutako CDa.

## Ekualdeko bi talde zuzenean

Larunbatean, Lain eta Funtastic Planet Tolosaldeko taldeak izango dira eszenatoki gainean.

Funtastic planet talde gaztea da. Patxi Azpiroz (gitarra), Txomin

Azpiroz (baxua), Iñaki Larrea (bateria) eta Iker Pinillosek (ahotsa) osatzen dute taldea eta beraien musika egiteko modua aurkeztera datoz.

Kontzertuan parte hartuko duen beste taldea, gaztea, baina aski ezaguna da jada. Jabi Ribero, Imanol Urkola, Mikel Palomino, Jon Altuna, Kristina Aranzabe eta Leire Berasaluzek osatzen dute Lain taldea. Villabonako taldea Lor taldearen *Zure Doimua* kantaren bertsioti bati esker egin zen eza-

gun duela urtebete inguru. Ondoren Gaztea maketalehiaketa irabazi zuen eta BBK Live jaialdian parte hartzeko aukera izan zuen. Orain, bere lehendabiziko diskoa grabatzen ari dira eta hemendik gutxira kaleratuko dute.

Taldea 2008ko urtarrilean sortu zen, baina otsaila amaieran hasi ziren, entsegu lokala lortu zutenean. Hortik abiatuta, denbora gutxian, euskal musikan txoko garrantzitsu bat lortu dute. Orain, Tolosan entzun ahal izango dira.

# Jabekuntza gorputzetik bultzatzeko asmoz ikastaro bat martxan

**Tolosa** » Berdintasun sailak antolatuta, Afrikako dantzen inguruko eskolak izango dira urriaren 6tik aurrera.

## ERREDAKZIOA

Joan den ikasturtean, Berdintasun sailak bultzatuta jarri ziren martxan Jabekuntza Eskolak. Honen barruan, urriaren 6an hasiko da *Jabekuntza gorputzetik: Afrikako dantza* izenekoak. Anne Agirre eta Josebe Iturrioz izango dira irakasleak.

Astearte eta ostegunetan izango dira saioak, 19:30etik aurrera, eta ordubeteko iraupena izango dute. Ostegunetako klase teorikoa izango da, eta bi astetik behin bakanrik eskainiko dute. Asteartekoak berriz, astero emango dute, eta klase praktikoa izango da.

Interesatuak, izena emateko, mezu elektronikoki bat bidali dezakete [\*la.net\* helbidera, edo deitu hurrengo telefono zenbakira: 943 65 44 66. Bertan datu hauek zehaztu beharko dituzte: izen-abizenak, adina eta telefono zenbaki bat.](mailto:berdintasuna@tolosakouda-</a></p>
</div>
<div data-bbox=)

Ikastaro honen bidez, jabekuntza gorputzetik bultzatu nahi da. Hau da, gorputzarekin harreman osasuntsua sortzea, ariketa egitea eta estereotipoek neska gazteei nola eragiten dieten eta zer egin hausnartzea. Berdintasun sailekoen hitzetan, «dirudienez, berdintasun formal lortu duen gizartean estereotipoak eta rol sexistak mutatu egin dira. Mutazio horiek hautemateko zailagoak dira, gazteei eragiten dietelako batez ere». Edertasun ereduak eta estereotipoen erradikalizazioa, legegariaren markotik irten, eta hedabideetatik irtetzen dira, bideojokoen eta gazteei zuzendutako bestelako elementuen bidez. Gaurko estereotipoak eta rola zuzenean gorputzaren ingurukoak izaten dira, are gehiago, gazteen gorputzen ingurukoak.

# Seme-alabekiko komunikazioa hobetzeko Topaketak

**Tolosa** » Aurten ere Osasun eta Gizarte Zerbitzuek jardunaldi hauek antolatuta dituzte; urritik urtarrilera izango dira.

## ERREDAKZIOA

Beste urte batez, Tolosaldeko Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuek Guraso Topaketak antolatuta dituzte. Hauen helburua da seme-alabekin afektuzko harremanak eta komunikazioa sanoa izatea. Baita, errespeta eta elkarren artean bizi-zeko arau eta muga batzuk erailkitzea ere. 16 urte arteko seme-alaben gurasoei zuzendua dago ikastaroa.

Urriaren 22an hasiko dira topaketak, eta ostegunero izango dira, urtarrilaren 28a bitarte. Saioak arratsaldetan izango dira, 15:15etik 16:45etara. Bertaratan diren aiten eta amen beharretara egokitu dira aurtengo topaketak. Hau dela eta, taldearen arabera zehaz-

tuko dira gaiak. Esaterako, aurreko urteetako partaideek aurkezturiko gaiak kontuan izanik, hauek dira landutako batzuk: garapen psikologikoa haurtzaroen, seme-alaben autoestima eta autonomia, baloreen heziketa, aisialdia eta denbora librearen kudeaketa, anai-arreben arteko liskarrak eta zeloak, bizitzarako trebetasunak, komunikazioa, elikadura nahasteak, arauak eta mugak, jostailuak eta jolasak...

Errota Haur Liburutegian izango dira saioak. Izena ematen duten guraso kopuruaren arabera, bi talde egingo dira, bata euskaraz eta bestea gazteleraz izateko. Izena emateko epea urriaren 16an amaituko da. Hau, Tolosaldeko Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuen gunean egin daiteke, astelehenean ostiraleran, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Baita, 943 69 74 60 telefono zenbakira deituta ere. Plazak mugatuak dira, ondorioz, Tolosan bizi direnek lehentasuna izango dute.

# AEKren eskolak Irura, Villabona eta Zizurkilen izango dira aurten ere

## ERREDAKZIOA

Hemendik egun gutxira ekingo diote ikasturte berriari Tolosaldeko AEK euskaltegiak. Urriaren 5ean hasiko dituzte aurtengo euskara eskolak. Hala, honako herri eta ordutegi hauetan aterako dira ikastaroak. Amasa-Villabona, goizez, 10:00etatik 12:00etara izango dira saioak. Iruran berriz, eguerditan, 15:00etatik 17:00etara bitartean. Azkenik, Zizurkilen ere goizetan izango dira eskolak: 10:00etan hasi eta 12:00ak arte.

Euskara eskolak urriaren 5ean hasiko badira ere, oraindik aukera dago talde hauetan izena eman eta euskara ikasteko. Hala nahi duenak, Andoingo euskaltegiari dei dezake edo bestela, Amasa-Villabona, Zizurkil eta Irurako Udaleko Euskara Zerbitzuetan. Andoingo bulego ordutegia ondorengo da: 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:30era. Bestela, harremanetarako telefono zenbakia 943 59 17 04 da.

# T Telefonoak Larrialdia. ((112))

## OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

## Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispenza:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

## GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldea bus:** 943 650621

**Leiztaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

## BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Misio taldeak postalak jarri ditu salgai proiektuak lagundu ahal izateko

**Ibarra** » Banaka euro baten truke eskuratu ahaliko dira; talde eta enpresentzat testuak eta irudiak ere gehitu ahal zaizkie.

## » DATUAK

- **Ekimena.** Misio Taldeak postalak jarri ditu salgai dituen proiektuak lagundu ahal izateko.
- **Postalak.** 13x15 neurrikoak dira. Banaka euro bat. 500 baino gutxiago kolore batean 35 euro eta bi koloretan 65; 500 baino gehiago kolore batean 50 eta bi koloretan 85 euro.
- **Eskaerak.** 605 70 55 16 (Jose Mari Arruti) edo [fotoarruti@lanbroa.com](mailto:fotoarruti@lanbroa.com) helbidean postala eta kopurua zehaztuz.

## ERREDAKZIOA

Ibarratik Misio Taldea Gobernu Kanpoko Erakundeak postalak jarri ditu salgai bere proiektuak diruz lagundu ahal izateko. Hirugarren urtez jarri du abian ekimen hau, eta oraingo honetan ere, taldeko kide diren artistek eginiko lanak dira guztien eskura jarri dituztenak.

1997. urtetik ari da lanean Misio Taldea Hirugarren Munduko hiru herrialdetan martxan dituen hainbat proiektutan. Hain zuzen ere, proiektu horiek bultzatzeko dirusarrerak lortu behar izaten dituzte, eta horretarako hainbat ekimen antolatzen dituzte urtean zehar. Horietako bat da postalak saltzarena. Ondorengo herrialdeetako proiektuak laguntzen dituzte ibar-

rialde azpigaratueta kaltetuen dauden talde sozialak», azaltzen dute Misio Taldeak.

## Norbanako nahiz talde eta enpresentzat

Hirugarren urtez, taldeko kide diren artistek egin dituzten postalak jarriko dituzte herritarren eskura. Postal eta sobre bakoitzaren prezioa euro batekoa da. Hala, enpresako testua eta anagramak inprimatzeko aukera ere ematen du Ibarratik Misio Taldeak. Horretarako prezioak ondorengoak izango dira: Kolore batean eta 500 baino gutxiago 35 euro, eta 500 baino gehiago 50 euro; 2 koloretan eta 500 baino gutxiago 65 euro, eta 500 baino gehiago badira, 85 euro ordaindu beharko da.

Postal hauek erosteko interesa duenak edo taldearen ekimenetan parte hartu nahi duenak 605 705 516 zenbakira (Jose Mari Arruti) deitu edo [fotoarruti@lanbroa.com](mailto:fotoarruti@lanbroa.com) helbidera idatzi beharko du, zein postal eta zenbat nahi dituen zehaztuz.

tarrek: Santa Rosa eta Baba (Ekudor), Suyapa (Honduras) eta Gujarat (India).

Proiektu hauek alor oso ezberdinetakoak dira, hala nola, emakumearen promozioa, jangelak, erabilera anitzeko gelak eta etxebizitzaren eraikuntza, botiken erosketa eta banaketa, haurrak besoetaketzea, alfabetazioa eta hezkuntza. «Batez ere haurren eta emakumeen egoera hobetzera zuzendutako proiektuak dira, hauek baitira he-

# Odriozola aske uzteko eskatuko dute bihar

**Tolosa** » Hileko lehen ostegunero bezala, Plaza Zaharrean elkarretaratzera deitu du Lizardi elkarteak, 19:30ean.

## ERREDAKZIOA

Azken 15 hilabeteetan egin duten moduan, bihar hilabeteko estreinako osteguna izaki, 19:30ean, Plaza Zaharrean elkarretaratzea egingo du Lizardi Kultur Elkarteak Pello Odriozola Agirre bazkideari «egin dioten bidegabekeria salatze eta aske uzte eskatzeko».

Pello Odriozolak 20 urteko kartzela zigorra bete ostean, kalean behar zuen 2008ko uztailaren 2az geroztik, baina 10 urtez luzatu zioten zigorra. 15 hilabete igaro dira ordutik. Lizardi elkarteak kideek Joxi eta Joxeanen kasua jartzen dute adibide bezala: «Joxi eta Joxean bahitu, torturatu eta hil zituztenek 3 urtetik 6 urte bitartera pasa dituzte kartzelan. Justizia ezaren adibiderik argiagorik nekez aurkitu genezake».

Hala, Lizardi elkarteak fatxadan zintzilik zegoen Odriozolak aske egon behar zuen egunetik pankarta bere argazkiarekin, eta

ordutik egunak igaro ahala gehitzen joan dira. Bada, uztailaren 18an pankarta kentzeko adierazpena jaso zuten Ertzaintzaren eskutik, «biktimak irain zitzaizkela». Horretarako egun bateko epea eman zieten, eta ez bazuten betetzen Auzitegi Nazionalera eramango zutela kasua zioen adierazpenak.

## «Ez da goresmena, protesta baiziki»

Taldeko kideek Pello Odriozolaren argazkia estaltzea erabaki zuten orduan; «Ertzaintza argazkiekin tematuta zegoela ikusi genuen, beraz, estaltzearekin betetzat eman genuen agindua». Argazkia estaltzearekin «argazki zentsuratu» adierazi nahi izan dute. «Dena den, argi utzi nahi dugu pankarta horretan ez dela inor gorosten; protesta egiten da», gehitu dute. Hori dela-eta, elkarteak kideek auzitegiatarajo dute eta helegitea jarri pankarta kentzeko erabakiaren aurka, «guk soilik uztailaren 2tik kalean beharko lukeela eskatzen baitugu».

Bihar, beraz, hau guztia salatzen elkarretaratzea egingo dute, eta aurrera begira ekitaldi gehiago antolatzea ere aurreikusi dute.

# Bihar hasiko da Amaroako euskal dantzen ikastaroa

**Tolosa** » Bihar, 20:30ean izango da lehen bilera, Auzoetxe elkarteak; abendua bitarteko egitaraua zehaztuko dute.

## ERREDAKZIOA

Bihar ekingo dute Amarozen euskal dantzen ikastaroari, «eskarmentu handiko» irakasleekin, hau da, Dori Biloria eta Andoni Gorostidirekin.

Bihar abendua bitarte gauzatuko den programa planifikatuko dute, ezagunenak diren dantzak ikasi edo hobetzeko: arin-arin, fandango, muxiko, eta abar. Eskolak ostegunero izango dira 20:30ean, Amaroako Auzoetxe lokaletan, haur parkearen ondoan.

Amaroako Dantza Taldeak auzotarrak eta ingurukoak animatu nahi dituzte parte hartzera «aktibitate alai eta osasuntsu honetan; ikasi dantzan disfrutatuz, gero dantzan disfrutatze».



Hainbat postal jarri dituzte aukeran. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# Aldabarrek agur esan diete eta irurarrek ostiralean jarraituko dute

**Jaiak** » Atzo amaitu ziren jaiak Tolosako auzoan; Iruran atsedean egunen ostean, berriro ere jaietan murgilduko dira.

## ENERITZ MAIZ

Aldaban eta Iruran, festetako egun handia izan zen atzokoa. San Miguel egunarekin, Aldabako jaietako amaiera eman zieten eta Iruran, atsedean egun batzuren ostean, ostiral eta larunbatean berriro ere jaiak izango dituzte.

## Azken eguna Aldaban

Goizeko 11:00etan, San Miguel egunez, Meza Nagusia izan zuten eta ondoren, herritar guztientzat hamaiketako bikaina prestatu zuten aldabarrek. Arratsaldean, txikien txanda izan zen Idoia Sanchez ipuin kontalariarekin eta jarraian, karta txapelketa egin zuten. Nola ez, jaietako amaiera tripa ondo



Meza Nagusiaren ostean, frontoian hamaiketako egin zuten. IMANOL GARCIA

betez eman zieten, afari herrikoia-ekin. Datorren urtera arte, agur esan zieten Aldabako jaietako amaiera Uganeko jaiak izango dituzte, urriaren 17an.

## Iruran atsedean egunak

Iruran ere, Meza Nagusia izan zuten eta ondoren herriko dantzarien saioa eta hamaiketako herrikoia izan zituzten. Eguzkiaren goxotasunarekin, apar festaz gozatzeko aukera paregabea izan zuten herriko haurrek. Arratsaldean, Irurako eta inguruko herrietako dantzari txikiak saioa izan zen. Egunari amaiera, Erramun Martikorena eta Mikel Markezaren emandiarekin eman zioten.

Bi egunetan indarrak berreskuratzeko tartea izango dute irurarrek, eta ostiral eta larunbatean berriro ere jai giroan murgilduko dira. Ostiralean, Xare Elkartearen txistojate, Play Back jaialdia plazan eta ondoren, La Banda del Jefe Bigun. Larunbatean, besteak beste, haur parkea, ezkonduen soka dantza, bikoteen bazkaria, Udaberri dantza taldea, kale animazioa edota herensugearen erretzea izango dira. Azkenik, urriaren 11n, jubilatuek bazkaria egingo dute.



Herriko dantzariak, Meza Nagusiaren ostean dantzatu zuten plazan. Arratsaldean, Erramun Martikorenaren emanaldia entzun zuten bertaratuek. E. MAIZ



## «Egin didatena gehiegi iruditu zait»

**BIXI LARRINAGA** » Jaietan omendu duten herritarra

**Irura** » 89 urteko Bixi Larrinaga izan da aurtengo jaietako amaiera ematearen ardura izan duena, eta era berean, omendua.

## E. MAIZ

Bixi Larrinagak (Irura, 1920), ostiralean herriko jaietako amaiera eman zien txupinazoa botatzen. Atzo, San Miguel egunez, herriaren eskutik omenaldi beroa jaso zuen bere bizitzan egin eta eskaini duenagatik. **Zer sentitzen da honelako omenaldi beroa jaso ostean?** Izugarriko emozioa sentitu dut. Ez zait iruditzen horrenbeste merezi dudarik. Egin didaten guztiak gehiegi iruditu zait.



E. MAIZ

## Nola joan da omenaldia?

Meza Nagusian, bertsoak kantatu eta idatzia irakurri didate. Gero dantza eskaini didate herriko haurrek, loreak eta oroigarria ere eman dizkidate. Seme-alabak, ilobak eta bilobak ere nire ondoan izan ditut. **Herriaren eskutik omendua izateko, zerbait egingo zenuen urte hauetan guztietan?**

Urtea askoan, gaixo daudenekin lanean aritu naiz. Apaizari laguntzen nion etxetara. Jauna ematera joanez. Lehengo apaizarekin ni bakarrik joaten nintzen eta oraingoarekin berriz, biok batera ibiltzen gara. Eta elizan ere laguntzen diot.

**89 urte eta oraindik sasoi ederren zaude. Zein da sekretua?**

Hilbetez jaio nintzen eta dena ondo bada, 90 urte gertuago ditut. Bost seme-alaba, 13 iloba eta 5 biloba ditut. Oraindik bista oso ona dut eta josten aritzen naiz. Iurreamendin dauden irurarrak bisitatzen ere joaten naiz Tolosara. Appetitu onekoa naiz, jatea gustatzen zait baina batzuetan nahi baino gutxiago jaten saiatzen naiz.

**Noiz jakinarazi zizuten zu izango zinela txupinazoa bota behar zuela eta omendua?**

Festak hasi baino hamar bat egun lehenago izan zen eta hauxe zen gutxiena espero nuen. Merezki dudala esaten didate ordea.

**Zer esan nahi diezu herritarrei?**

Txupinazoa egunean ere esan nien balkoitik, San Miguel jaiak ondo pasatzeko. Eta eskerrak eman nahi dizkiet herritar denei, egun hauetan, guztiak zorionak ematen ari zaizkit eta.

**Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu horrela?**

Osasunak laguntzen didan bitartean, orain bezala jarraituko dut.

**Kultura** » Musikaren arloan aipatzekoa da Bide Ertzean taldearen 'Leidor Sessions' DVDa ikusgai izango dela.

**ERREDAKZIOA**

Bete beterik dator kigu urria kulturari dagokionez. Ekitaldien artean Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketa nabarmendu behar da, eta horrez gain, musikarekin jarraituz, Bide Ertzean talde tolosarraren *Leidor Sessions* DVDa izango da ikusgai, eta punta puntako kontzertuak izango ditugu Bonbereanean astebururo. Kultura Gorra-*ren* Jaialdia eta *Cocidito Madrileño* 2 antzerkia izango dira urrian aipagarrienak diren beste bi ekitaldiak. Bi hitzaldi interesgarri ere izango dira, Josu Iztueta bidaiariak eta Asier Izagirre mendigoizaleak emango dituztenak.

**Kultur Etxea**

- **Marketing on line.** Gipuzkoako Ganberak dendarientzat antolatutako zerbitzuaren aurkezpena, urriaren 7an, 20:15ean.
- **A1N1 gripeari buruzko hitzaldia.** Tolosako DYAk antolatuta, urriaren 8an, 20:00etan.
- **'Haur minbiziari arreta osoa' jardunaldiak.** Aspanovas Gipuzkoa eta Tolosako Udal Osasun sailak antolatuta, urriaren 17an, 10:30etik 13:30era.
- **Odol-ematea.** Hileroko odol ataraztea, urriaren 19an, 18:00etan.
- **Arnas errehabilitazioa.** Asuncion Klinikak antolatuta, urriaren 23an, 09:00etik 14:00etara.
- **Josu Iztueta bideo proiektzioa.** Galtzaurdi Euskara Taldeak antolatuta, urriaren 29an.
- **Asier Izagirrearen hitzaldia.** Aiz Orratz elkartearen 75. urteurrenaren baitako ekimena, urriaren 30ean, 20:00etan.

**Aranburu Jauregia**

- **'Liburutegia gudan'.** Erakusketa dibulgatiboa, urriaren 3ra arte.
- **Iñigo Altolagirrearen pintura erakusketa.** Urriaren 31ra arte.
- **Natxo Barberenaren pintura erakusketa.** Urriaren 16tik azaroraren 14ra arte.

**Leidor aretoa**

- **'Tinko'.** Zinea euskaraz ikasleentzat, urriaren 7an.
- **VI. Gorren Komunitatearen Sentsibilizazio Astea.** Urriaren 9an eta 10ean, Gaiinditzen elkarteak antolatuta.
- **Zineskola.** *Gran Torino* filmaren proiektzioa ikasleentzat, urriaren 15ean.
- **'Akelarre'.** Kutxako Urrezko Zerbitzuaren proiektzioa. Pedro Olearena. Gonbidapenak Kutxako bulegoetan. Urriaren 16an.
- **'Cocidito Madrileño 2'.** Antzezlanak, urriaren 17an, 20:30ean.
- **'Leidor Sessions'.** Bide Ertzean taldearen DVDaren proiektzioa, urriaren 23an, 20:30ean.
- **Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa.** Urriaren 28tik aurrera.

# Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, aipagarriena urriko kultur eskaintzan

**■ Zine Foruma.**

- *Still Walking*, bihar.
- *Un lugar en la cumbre*, urriaren 8an.
- *Tetro*, urriaren 15an.
- *Paranoid Park*, urriaren 22an.

**■ Zinema.**

- *Que les pasa a los hombres*, urriaren 2, 3 eta 4ean.
- *Mapa de los sonidos de Tokio*, urriaren 3, 4 eta 5ean.
- *Azur eta Asmar*, urriaren 4an.
- *Malditos bastardos*, urriaren 10, 11, 12 eta 13an.
- *Shorts*, urriaren 11 eta 12an.
- *Gordos*, urriaren 16, 18, eta 19an.
- *School Rock Band*, urriaren 18an.
- *Agora*, urriaren 23, 24, 25 eta 26an.
- *El mundo de los perdidos*, urriaren 25an.

**Besterik**

- **Miriam Mendoza ipuin kontaria.** Errota Haur Liburutegia, urriaren 1ean, 18:00etan.
- **Gaztetxoentzako antzerkia eta tailerrak.** Tolosako dendariek antolatutako Dinamizazio Kanpainaren baitan hainbat ekitaldi. Urriaren 3an, Tombs Creatius, Plaza Berria 10:30etik 13:30era eta San Frantziskon 17:00etatik 20:00etara. Urriaren 17an, Debotte Enbote, Triangulon 17:00etan. Urriaren 24ean, makillajea, globoflexia, lepokoak, haur berbera, Triangulon 17:00etan.
- **Kultura Gorra-*ren* Jaialdia.** Urriaren 5etik 12ra.
- **Tolosako Musika Banda.** Udazkeneko kontzertua, urriaren 17an, Zerkausian 19:30ean.
- **Sendabelarrak, aromaterapia eta elikagaien terapia.** Ikastnek antolatutako ikastaroa. Urriaren 19 eta 26an.
- **Aiz Orratz-Veleta elkartearen 75. urteurrenko kontzertua.** Piana, txistua eta ahotsa. Udal musika eskolako entzuztegia, urriaren 28an, 19:00etan.

**Bonbereanea**

- **R eta Stupenda Jones.** Urriaren 2an, 22:30ean.
- **Lain eta Fantastic Planet.** Urriaren 3an, 22:30ean.
- **Sorkun (akustikoa).** Urriaren 9an, 22:30ean.
- **121 dB eta Lauroba.** Urriaren 10ean, 22:30ean.
- **Lor eta Sei urte.** Urriaren 16an, 22:30ean.
- **Inoren ero ni.** Urriaren 17an, 22:30ean.
- **Sexty Sexers eta On Benito.** Urriaren 23an, 22:30ean.
- **Bonbereanea 9. Skate Festa.** Urriaren 24ean, graffiti erakustaldia egun osoan zehar, skate txapelketa 17:00etan, eta Stepy Selekta, DZ eta lagunak 22:30etan.
- **Señor No.** Urriaren 30ean, 22:30ean.
- **Kerobia.** Urriaren 31n, 22:30ean.



Cantemus Mixed Choir abesbatza, iazko Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan Sari Nagusia lortu zuena. IDOIA LAHIDALGA



mantangori

6 DVD euskaraz



Zinema Etxean 4

urriaren 10etik aurrera larunbatetan DVD bat

1. Lagundu arraina naiz
2. Heidi 3. berrito mendian
3. Betizu eta Xangaduko misterioa
4. Olentzero eta Subilaren lapurketa
5. Urtemuga festa
6. Prop & Berta



berria

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOA 26 €  
ESKARIA EGITEKO: 943 30 43 45,  
harpidetza@berria.info  
edo www.berria.info

Babeslea:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA  
HIZKETA eta Hizkuntza

Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz  
**berria**

## E Elkarrizketa

JUAN KRUZ IGERABIDE › Idazlea

## «Haurrek irakurketa gardena ematen didate eta hortik asko ikasten da»

**Aduna** » 'Printzesa Begi-Zulo' gaztetxoentzako liburua argitaratu du Juan Kruz Igerabidek; Elena Odriozolaren marrazkiek irudikatzen dute berriro ere idazle adunarraren testua.

## IMANOL GARCIA


Juan Kruz Igerabide (Aduna, 1956) idazleak liburu berria aurkeztu du, *Printzesa Begi-Zulo*, gaztetxoentzako liburua argitaratu du Juan Kruz Igerabidek. Berriro ere, Elena Odriozola marrazkilariarekin aritu da elkarlanean. Denbora batez Alemanian dago adunarra eta bertatik erantzun ditu galderak. «Oso garagardo ona daukate», dio. «Nik alkoholik gabea edaten dut, baina ohituta gaudenaren aldean askoz gozoagoa da hori ere».

**Nolatan zaude egun Alemanian?**

Cervantes Institutuak eskualdeko poesiari jardunaldi batzuk eskaini dizkio München, eta Harkaitz Cano eta biok gonbidatu gaituzte, zenbait hitzaldi, errezitaldi eta kultura-ekintzatan parte hartzeko. Gainera, denbora libre asko uzten digute, eta lanerako leku bat, gure lanak egin ditzagun. Larunbatean Andesch Festival izenekoan izan ginen, Municheko udaletxeko kultura-sailaren stand-ean.

**Zer nolako esperientzia izaten ari da idazteko utzi dizueten leku horretan egotea?**

Oso esperientzia interesgarria ari da gertatzen. Basoan bakarturik gaude, etxe handi batean, aintzira batetik gertu, Munichetik ia ordu betera; beste idazle, argazkilari, irudigile eta abar ere etxe berean daude, bakoitza bere apartamentuan, baina oso gutxitan ikusten ditugu. Berebiziko isiltasuna dago hemen, eta bakoitza bere lanean ari da. Komentu bat ematen du honenek. Esku artean, helduentzako nobela batekin nabil, amaiera-zuzenketak egiten. Alberdaniak aterako du azaroen, *Esna gaudela sinetsirik* izenburuarekin.



HITZA

**Orain atera duzun liburua, aurrekoa bezala, haurrei zuzendutakoa da. Horrela suertatu da edo hori nahi zenuen idatzi?**

Ba, alde aurretik ideia bat baneu-

kan, baina idatzi ahala istorioak bere bidea hartu zuen, eta nik segitatu, lapitza eskuan.

**Aurrekoan laminak izan ziren protagonista. Oraingoan printze-**

**sa bat, triste dagoen printzesa bat. Zergatik pertsonaia hori?**

Bi mundu ageri dira ipuinean: fantasiaren mundua, non printzesa printzesa den; eta errealtatearen



## » DATUAK

- **Izenburua.** *Printzesa Begi-Zulo.*
- **Egilea.** Juan Kruz Igerabide.
- **Marrazkigilea.** Elena Odriozola.
- **Argitaletxea.** Elkar.
- **Bilduma.** Kuku 37.
- **Adina.** 8 urtetik gorakoentzat
- **Salneurria.** 8,25 euro.
- **Orrialde kopurua.** 48.
- **Kaleratze data.** 2009ko iraila.

mundua, non printzesak lan egin behar duen bizimodu ateratzeko; nekaturik, begi-zuloak agertzen zaizkio. Azken batean, nortasunaren bi alde agertzen dira: ilusioena nahiz fantasiarena, eta errealtate gordinak eragindakoa. Haurrek bi mundu horiek normal-normal erabiltzen dituzte eguneroko jolasetan.

**Aurreko liburua eta hau zortzi urtetik gorakoentzat da. Beharrezkoa al da adin hori izatea ipuina irakurtzeko?**

Liburuak jartzen duten adina orientabide hutsa da. Haur batetik bestera alde handiak gertatzen dira. Lehen irakurleentzat ere egin izan ditut liburuak; laburragoak izaten dira, letra handiagorekin. Dena dela, ipuin bat gurasoak ere irakur diezaioko haurrari, eta orduan adinaren kontu hori askoz erlatiboago gertatzen da.

**Zer ematen dizute idazle bezala adin tarte horretako irakurleek?**

Idazle gisa, ez adin horretakoek bakarrik, adin guztietako haurrek baizik, irakurketa gardena da ematen didatena, aurreiritzi gabea, eta hortik asko ikasten da, ez bakarrik literaturaz, bizitzaz ere bai.

**Elena Odriozola margolariarekin batera atera duzu liburua. Zer garrantzi dute marrazkiek liburuan?**

Marrazkiek beste ipuin bat bezala osatzen dute, atzeko planoan istorioaren beste alde batzuk erakutsiz bezala. Gainera, pertsonaien emozio eta sentipenen adierazpen finak erakusten dituzte Elenaren ilustrazioek.

**Esan izan duzu Odriozolarekin lan egitea oso gustuko duzula. Nola joan da oraingoan elkarlana?**

Ipuina eman, eta ez diot inolako iradokizunik egiten; agian, ñabardura batzuei buruz galdetzen dit telefonoz, baina besterik ez. Gero, maketatu aurretik ikusi ohi ditut marrazkiak. Margolanen erakusketa batera joatea bezala da.

## Iragarki laburrak

## ALOKAIRUAN

■ **Kafetegi-Txokolategia.** Tolosan, erdigunean, martxan dagoen kafetegi-txokolategia alokatzen da. Arrazoa: jubilaioa. Telefona: 669 82 70 96.

## SALGAI

■ **Etxebizitzak.** Tolosako Gorosabel kalean bi etxebizitza saltzen

dira. Toki oso onean. Bata bi logelakoa, 180.000 eurotan. Bestea, berriz, 156.000 eurotan. Harremanetarako deitu 669 82 70 96.

■ **Garajea.** Alegian, San Joan kalean garajeko marra salgai. Prezioa: 18.000 euro. Harremanetarako deitu 669 82 70 96 telefono zenbakira.

## GALDUTAKOAK

■ **Jertse beltza eta eguzkitako betaurrekoak.** Joan zen igandean, irailak 27, jertse beltz bat eta eguzkitako betaurrekoak galdu ziren Urkizutik Enriorako bidean, Intxurbi baserriaren inguruan. Aurkitu dituenak dei dezala 695 749 825 telefono zenbakira. Aldez aurretik, mila esker.

@ **Eztabaida.** Zizurkilgo eta Villabonako udalek Zubimusu zubia norabide bakarrean jarri nahi dute eta bidearen beste zatia oinezkoentzako utzi. Zer iruditzen zaizu proposamen hori? [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

**X. HITZA Argazki Lehiaketa.** Finalera iritsi diren zortzi argazkiak ikusgai daude Tolosako Gorosabel kalean dagoen Karlis argazki den-daren erakusleihoan. Animatu eta parte hartu irabazlea aukeratzeko zure botoa emanez.

# Gudari Egunean mendi martxa, omenaldiak eta hainbat ekitaldi gehiago

**Tolosalde** » Espainiak Auzitegi Nazionalak gorriz zuen egunean, «eusko gudariei omenaldia egin zitzaizen».

## ASIER IMAZ

Euskal Herriko hainbat txokotan Gudari Eguna ospatu zen iragan asteburuan, nahiz eta Espainiak Auzitegi Nazionalak hamaika debeku plazaratu. Tolosaldean «hainbat ekitaldi» antolatu ziren larunbatean, «Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan bizia galdu duten gudariei omenaldia egiteko» asmoz.

Parte-hartzaileen esanetan, hasteko mendi martxa bat burutu zuten, tartean ekitaldia egon zelarik, «batik bat eskualdeko 16 gudariei zuzendua. Bertan txalapartariak, kantariak, bideo emanaldia... egon ziren, eta ondoren, eskualdeko gudarien argazkiei agurra dantzatu eta lore bana ezarri zitzaizen ondoan. Amaitzeko berriz testu bat irakurri zen».

## Gudari Eguneko idatzia

Lekukoaren arabera ondorengo idatzia erkin amaitu ziren larunbateko ekitaldiak.

Testuaren sarreran Frankismoaren amaierako urteez hitz egiten da: «duela 50 urte Euskal Herriko askapen borrokan mugarririk garrantzitsu bat» sortu zela aipatu. Ondoren, gaur egungo egoera aztertzen da idatzian: «Euskal Herria aukeraz eta arriskuz beteriko egoeran dago. Estatuaren apustua gogorra izanagatik ere, gaur arte ezker abertzalearen borroka gure herriaren asimilazioa saihe-

tu du. Garaian garaikoarekin, estatuek Euskal Herria ukatuz, gure lurraldea zatituz, gure identitatea ahulduz edo errepresio gordina ezarri, Euskal Herriarekin amaitzeko asmoak porrot egin du. Horixe da egin behar dugun lehen baieztapena: 50 urteotan, Espainiako eta Frantziako estatuek, erresistentzia sendo batekin egin dute topo, eta ezin izan dituzte euren helburuak lortu».

2009ko Gudari Eguneko irakurketaren arabera, «bide honetan milaka herritarren eta borrokalariaren ekarria ezinbestekoa izan da. Eta bereziki, Euskal Herriaren askatasunagatik guztia emateraino iritsi diren militanteen eskuzabalasuna eta borroka gorripatu nahi ditugu. Ehunka dira, Euskal Herriaren askatasunaren alde bizia eman dutenak eta ehunka dira egun ere herriagatik eta herriarentzat guztia ematen ari direnak. Horie guztiei esker ditu Euskal Herriak askatasunaren ateak zabalik eta horie esker ere zeharkatuko dugu askatasunaren atea datozen urteetan».

## Aurten zendutakoak gogoan

Mendi martxaren baitan egindako ekitaldian, aurten zendutako hainbat euskal herritar gogoratu omen zituzten: «bereziki aipatu nahi genituzke Kepa Arizmendi, *Baztan*, eta Jose Antonio Otxoantesana militantek. Eta baita, duela jada bost hilabete estatu aparatuek desagerrarazi zuten Jon Anza militantea ere. Haien borroka guretzat eredu da. Haiek pizturiko izar gorriek gidatzen gaituzte askatasunerara».

Izen propioen artean Villabonara zinegotzi ohia, Remi Ayestaran,

ere gogoratu zuten: «Ezker abertzalea aldaketa sakonak gauzatzeko mugimendu politikoa dela jakitun, gupidarik gabeko oldartze errepresiboan murgildurik dira. Aldaketa sakonak gauzatzeko aukeran gaudela ezkutatzearaz gain, aldaketa horiek zapuztu nahi dituzte, horretarako zauritu, bahitu, espetxeratu eta erail behar badute ere. Zentzu horretan, uztailean polizia erantzuleen bortizkeriak eraildako Remi Ayestaran, ezker abertzaleko militantea, gogora ekarri nahi dugun».

Amaitzeko, «bakoitzak dagoen eremuan antolatuz eta borrokatuz» jarraitzeko aldarria zabaldu omen zuten, «soilik ongi antolatuturiko herriak lortzen baititu bere helburuak».

## «Tolosan 400 argazki»

Mendi martxari amaiera emateko, lore eskaintza burutu zen Xebas eta Josetxo «Ibarrako gudarien» omenez jarrita dagoen monolitoearen aurrean.

Triangulon arratsalderako manifestazioa egiteko asmoa baldin bazuten ere, «polizia armatuaren presentzia izugarriaren ondorioz, irteera lekuz aldatzea erabaki zen, garbi baitzegoen ez zutela egiten utziko eta gainera manifestarien aurka oldartzeko gogo bizia nabaritzen zitzaizen. Beste leku batera mugitu arren, polizia erantzuleen presentziak jarraitu egiten zuten eta parte hartzera etorri ziren guztien artean manifestazioa bertan behera utzte erabaki zen. Horren ordez irakurketa burutu zen; *Eusko Gudariak* abestu eta eskualdeko gudariaren 400 argazki eta xingola beltza zuten hainbat ikurrina jarri ziren Tolosa guztian zehar».



Jon Rekondok II. Mailako Nafarroako Txapelketa irabazi zuen. HITZA

# Jon Rekondok txapela eta Josune Gorostidik bigarren postua

**Herri kirolak** » Asteburu honetan, urriaren 3an eta 4ean, Sukuntzak eta Urrutiak jokatu dituzte probak.

## A. IMAZ

Jon Rekondok eta Josune Gorostidik markak hautsi zituzten iragan larunbatean. Leitzako aizkolariak II. Mailako Nafarroako Txapelketa irabazi zuen eta Leaburu-Txaramako lokotx biltzaileak, besteren artean, Euskal Herriko Txapelketan bigarren postua lortu zuen, bere marka segundo batean hobetuz.

## Lehen mailako aizkolaria

Duela hiru aste Euskal Herriko Mailla Nagusira egin zuen jauzi Jon Rekondok. Iragan larunbatean gauza bera egin zuen Nafarroako Txapelketan, proba bikain irabaziaz gainera.

Larunbatean bost aizkolariren arteko finala jokatu zen Uhartan. Txapelaz gain, lehen bientzat maila igoera zegoen jokoan. Rekondo faborito bezala agertzen zen eta ez zuen hutsik egin; bera izan zen bikanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat ebakitzen lehena.

Bigarren posturako Daniel Vicerteren izena aipatzen zuten adituek, baina Oihan Larretxea gazte-

ak ezusteko bikaina eman eta mailaz igotzeko txartela lortu zuen. Hurrengo urtean Donato Larretxea, bere aita, edukiko du aurkariaren artean. Vicente hirugarren gelditu zen eta Xabier Mindegia laugarren. Azken postuan Jesus Etxeberria sailkatu zen.

## Gorostidi bigarren postuan

Egun berean, Igantzin, Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketa jokatu zen. Maika Ariztegi irabazi zuen eta nafarraren atzetik Josune Gorostidi sailkatu zen 20 segundoan. Leaburu-Txaramako kirolariak, hala eta guztiz ere, bere marka segundo batean hobetzea lortu zuen. Korrikalari bakoitzak ilaran jarritako 50 lokotx saskiratu zituen.

## Asteburu honetan gehiago

Euskal Herriko Txinga-Eroate Txapelketa jokatu da urriaren 3an Berrioizarko pilotalekuan. 18:00etan hasiko da proba eta bertan egongo da Migel Anjel Sukuntza leitzarra.


Hurrengo egunean, urriaren 4an, Euskal Herriko Harri-jasotze Txapelketa izango da Aizarnazabalgo Atari Soro pilotalekuan. Harri txikiaren ariko dira herri kirolariak eta bertan beste leitzar bat egongo da 18:00etan hasiko den proban, Josetxo Urrutia, hain zuzen ere.



# Presoen argazkiak «zentsuraturik»

**TOLOSALA** » Asteburuaren sarreran, hilabeteko azken ostirala suertatu zen. Hainbat herritan elkarretaratzek burutu zituzten euskal preso eta iheslarien eskubideen alde. Tolosako AAMtik jakinarazi zuten 80 la-

gun elkartu ziren Triangulon: «Presoen kartelak berriz estalita egon dira *Zentsuratu* hitza idatzita zeukan tela beltz batekin. Ertzaintza patruila baten presentzia ere nabarmena izan da». HITZA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Berastegi.** Odol bankoa etorriko da Muñagorri herri eskolara 18:30tik aurrera, odola emateko aukera izango da beraz.

■ **Tolosa.** Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldea bilera irekiekin hasiko da berriro hilero, azken astearteetan Korpus Kristi parroikiko lokaletan 20:00etatik aurrera.

**Tolosa.** Bisita gidatuak antolatu dituzte Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko aste-buruetan. 12:00etatik 18:00etara bitarte izango dira bisitak. Izen-ematea ireki dute eta hainbat bide ireki dituzte horretarako: Tolosako Ekinbide Etxean (943 650414 telefonoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo [topic@cittolosa.com](mailto:topic@cittolosa.com) helbidean egin daiteke.

■ **Tolosa.** Tolargik eta Tolosagak urtero antolatzen duten Argazki Lehiaketara argazkiak bidaltzeko epea gaur amaituko da. Euskara eta gure kultura da aurtengo gaia eta irabazleek urte osoko gasa eta argia doan izango dute sari bezala. Tolosaga edo Tolargiren bulegoetan aurkeztu daitezke argazkiak.

■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegian izena emateko aukera dago. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara joan behar da euskaltegiara (Rondilla kalea, 34) edo 943 651006 edo 943 652343 telefono zenbakietan lortu ahalako da informazio gehiago.

### Erakusketak

■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan. Urriaren bukaerara arte izango da ikusgai.

■ **Ibarra.** Gerrako umei buruzko erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. Sobiet Batasuna, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko eta Belgikan haur euskaldunek bizitako bizipenak jaso dira. Idi Ezkerra fundazioaren eskutik. Hilabete bukaerara arte dago ikusgai.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

# Hogeigarrenaren bila

**Euskara** » Urtero bezala mendi-buzoia jarri zuten Laskorain ikastolakoek; aurten Kukuarriko punta aukeratu dute horretarako.

### ERREDAKZIOA

Pasa den igandean Euskararen aldeko mendi-buzoia jarri zuten beste behin Laskorain ikastolakoek, Kukuarrin mendian, heremetzigarrena, hain zuzen ere. Euskaraz Bizi proiektuaren sortzaileek eguraldi ederra lagun izan zuten eta «egun zoragarria» pasa zuten.

Aurten Laskorainekoei egokitu zitzaizen egunaren nondik norakoak antolatzeko. Hiru autobus beteta abiatu ziren zezen-plazatik Igeldora, eta han, Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolakoekin, Lizarrain ikastolakoekin eta Gasteizko Euskaraz Bizi taldeko lagunekin elkartu ziren. Guztira, 230 laguneko taldea elkartu ziren Kukuarrin.

### Egunaren nondik norakoak

Kukuarrin puntan, Argitxoren omenez jarrirako oroigarriaren parean agurra dantzatu eta lau taldeek, beste behin, «euskararen alde egiteko eta ekiteko» duten konpromisoa berretsi zuten.

Kukuarritik Oriora abiatu ziren. Bidean hamaiketako ere egin zuten. Eguraldi aparta zegoela eta, Oriora iritsi bezain laster, neska-mutil zein guraso batzuk hango hondartzan bainua hartu zuten.

Hondartzaren pareko zelaian bazkaldu eta arratsaldea giro ederrean igaro zutela adierazi dute: abestiak, dantzaldia, kantu-jolasak... Seiak aldera autobusa hartu eta nor bere herrira buelta.



Kukuarrin elkartu ziren denak buzoia jartzeko; ondoren dantzariak agurra dantzatu zuten. HITZA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak